

**EAJ-PNV-k eta PSE-EE-k (PSOE)
HURRENGO AURREAKORDIO HAU
IZENPETU DUTE EUSKADI
MODERNOAGOA,
SOLIDARIOAGOA, JASANGARRIAGO
A ETA LEHIAKORRAGOA LORTZEKO
XEDEZ.**

Vitoria-Gasteizen, 2013ko irailaren 9an

SARRERA

Euskal gizartea egoera latzean dago gaur egun murgilduta eta, gure inguruko beste erkidegoetan bizi dena bezain gogorra izatera heldu ez den arren, demokrazian eta autogobernuan bizi izan garen urteotan erdietsi ditugun lorpenak erauzteko arriskuan aurkitzen dira une honetan.

Europan zabaldu den krisialdi ekonomiko eta finantzarioa bizi dugu bankuek nazioarte mailan arduragabe jardun dutelako, eta esparru politikoaren aldetik bankuen egitekoa eta ekonomia kontrolatzeko arau nahikorik ezarri ez delako.

Krisiak eztanda egin zuenean, Europa osoko gobernuek hainbat politika murriztaile jarri zituzten abian, egoera honi aurre egin nahirik. Baina, bost urte geroago, agerian geratu da hiritargoak sakrifizio handiak egin behar izan dituen arren, oraindik ezin dela antzeman krisitik irteteko bidea eta, egoera honetan, indarberritzea geldoa eta mingarria izango dela hainbat hiritarrentzat.

Ezin dugu ahaztu, gainera, Europen eta Espainian krisialdiaren ondorioak arintzearen aplikatu diren errezeta ekonomikoek kostata lortu dugun Ongizate estatua eta gizarte oreka larriki murriztu baino ez dutela egin.

Hartara, bide horrekin ados ez gaudenok behar besteko neurriak hartu behar ditugu, politika horiei aurre egiteko, eta Ongizate Estatuari eusteko, ongizatea bermatzeko behar diren erreformei ekinaz.

Administrazio eskudun guztietan politika antiziklikoak bultzatu behar ditugu, eta ekonomia suspertzeko eta enplegua sortzeko apustu irmoa egin behar dugu, bereziki gazteei eta luzaroan langabezi egoeran egon direnei begira.

Era berean, kontuan hartu behar da Lan Erreformatik eta hitzartutako hitzarmenen indarraldiaren amaierak lan gatazka aldia ekar dezaketela,

orain arte ezinezko izan baita enpresarien eta sindikatuen arteko akordioa lortzea, gai hau akordio bidez konpondu ahal izateko.

Euskadi ez da errealitate honetatik kanpo geratzen. Mundu globalizatu honetan gu ez gara irla batean bizi, gure sare produktiboaren gihar industrialak eta enpresei azken legegintzaldietan botere publikoen aldetik eman izan zaien laguntasun irmoak Euskadiri egoera hau beste erkidego batzuetan baino hobeto eramaten lagundu dioten arren. Dena dela, errealitate honek ez ditu kezkek uxatzen, milaka euskal familiak beren haragi eta odoletan atzeraldi ekonomikoaren, langabeziaren eta ongizate mailaren galera bizi dutenean. Hala egiaztatu dute egoerak aurkezten dizkigun datu objektiboek.

Urteko lehen hilabeteotan BPG-aren %1,9ko beherakada eman da, eta Euskadik gaur egun dituen 150.000tik gorako langabeak dira, seguruenik, politika ekonomiko okerraren ondorio, eta enpresa eta familiei beren proiektuak gauzatzeko orduan zailtasun handiak dakarzkien krisialdiaren emaitza.

Ohiz kanpoko errealitatean aurkitzen gara, egoerarik ahulenean aurkitzen diren pertsona eta taldeei eragiten dien krisia bereziki gogor eta luzea delako; horrekin batera, krisiak gizarte desoreka larria kausatu du: epe luzeko langabe taldea dago lan merkatuan sartzeko zailtasun handiak izango dituenak eta, horrez gain, % 50tik gorako langabezi tasa dago gazteen artean; enpresa batzuk enplegua mantentzeko ahalmena galtzen ari dira eta barne kontsumoa gero eta uzkurтуago dago. Horrekin guztiarekin batera, gero eta baliabide publiko gutxiago daude estatu babeslearen eta justizia sozialaren bermatzailearen funtzioa betetzeko.

Egoera kritiko honen aurrean Administrazio Publikoek politika antiziklikoak bultzatu behar dituzte eta jarduera ekonomikoa eta enpleguaren sorrera

suspertzeko neurriak hartu behar dituzte, bereziki gazteei eta epe luzeko langabeei begira.

Euskadiko administrazio ezberdinetako gobernu gehienak gutxiengo egoeran aurkitzen dira gaur. Egoera okerren dagoen aldi honetan, krisiak gogorren estutzen gaituen honetan, inoiz baino beharrezkoagoak dira akordioak eta eragile politiko,ekonomiko eta sozialen artean adostasun zabalak sortuko dituzten politikak.

Horregatik guztiagatik, EAJ-PNV-k eta PSE-EE-k (PSOE) ezinbesteko jotzen dugu **Herri Akordioak lortzeko Oinarri hauek** adostea, **Euskal Hiritargoaren mesederako**, krisialditik irten ahal izateko, enplegua sortzeko eta **gizarte kohesionatuago, solidarioago eta lehiakorragorako bidean aurrera egin dezagun.**

Funtsezko helburu hauek lortu ahal izateko, akordio globalaren, ikuspegi zabalaren beharra dugulakoan gaude. Helburu horrek gidatuta adosten ditugu hurrengo lerrootan biltzen diren lau herri akordioak eta hauei lotutako eranskinak.

LAU HERRI AKORDIO.

1) Ekonomia produktiboa eta enpleguaren sorrera bultzatzeko akordioa.

Alderdi biok partekatzen dugu gaur egun Euskadiko lehentasun direla ekonomia suspertzea, kreditua ahalbidetzea eta enpresei laguntzea eta enplegua sortzea.

Horretarako, **Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Plana** bultzatzeko konpromisoa hartu dugu; Eusko Jaurlaritzaren, Aldundien eta Udalen ahaleginak batuko dituen plan globala da, gutxienez, hurrengo jarduera lerroak aurreikusiko dituen:

- Enplegurako proposamen zehatza epe luzeko langabeei eta lan esperientziarik gabeko gazteei zuzendua, talde hauetan aurkitzen diren pertsonak kontratatzeke laguntasunak emanez, eta ahalegin berezia langabezi tasa handienak dauden eskualdeetan eginez.
- Enpresa Pizgarriak emateko Programa abian jartzea, abalen bidez eta Egitasmo kaudimendunekin, Euskadin enplegua sortzen duten, esportazio kontratuak bultzatzen dituzten edo I+G+B balio erantsi handia duten inbertsio egitasmoak martxan jartzeko bidean dauden enpresei finantzaketa bermatzeko.
- Ikerketa eta garapena suspertzeko bultzada antiziklikoa, ezagutza sortzen duen balio erantsia lortzeko esparruan lehiatu ahal izateko. Gure sektore ekonomikoaren hazkundera (enplegua sortzeko ezinbestekoa) ezagutza handiagoaren oinarrian baino ezin izango da egin, eta horrek esportatzen eta beste merkatuekin lehiatzen lagunduko digu.
- Herrialdeetan Erakunde arteko Inbertsio Plana, enplegua sortzen duten azpiegitura estrategiko orokorrak martxan jartzeko (garraioa, etxebizitza, egitasmo zientifikoak, ingurumena, e.a...), lehenagotik aurreikusitako ekimenei jarraipena emanez.

- “Euskadi Funtsa” sortzea, enpresa ekimen berriei kapitala emateko, zerga tratamendu berezia ezarriz.
- Gutxienez orain arteko dotazio ekonomikoarekin, “RENOVE” egitasmoekin jarraitzea, krisialdi ekonomikoak bereziki kaltetu dituen arlo ekonomiko eta komertzialetan, eta politika publikoek beste arlo batzuk lehenetsi dituztelako alboratuak izan direnetan (makineria, etxebizitzetako eraginkortasun energetikoa, e.a...), Euskal Autonomi Erkidegoko sektore industrial eta komertzialetako jarduera mantentzen eta sustatzen laguntzeko xedez.
- Eusko Jaurlaritzak behar besteko ekimenak bultzatuko ditu, ugazaberiaren sektoreak eta sindikatuek Euskadin negoziaketa kolektiboari buruzko akordioak lor ditzaten.
- Suspertze Ekonomikorako eta Enplegua sortzeko Planerako, 2014, 2015 eta 2016 urteotan, luzatutako aurrekontuan aurreikusi diren baliabideez gain erabiliko da akordio honen bidez abian jarri nahi den zerga erreforma eta iruzurraren kontrako ekimen honetatik eta beste neurri batzuen bidez lortuko diren baliabideen % 50.

2) Fiskalitatea. Iruzur fiskalaren kontrako borroka eta zerga sistema berria.

Zerga sistema bidezkoagoa, progresiboagoa eta eraginkorragoa lortu behar dugu, eman behar duenak dagokion neurrian eman dezala. Horretarako:

- Alderdi biek adostu dute Eusko Legebiltzarrak, Harmonizazio, Koordinazio eta Lankidetzeta fiskalerako dituzten eskumenekin ados,

euskal zerga sistema berriaren ildo nagusiak eztabaidatu eta adostea, hiritarren arteko egiazko berdintasuna lortze aldera. Akordioak Herrialde Historikoetako Batzar Nagusietara eramango dira, eta alderdi biek hartu dute horiek defendatu eta babestuko dituztelako konpromisoa.

- Eusko Jaurlaritzak lau hilabeteko epean Zergen Harmonizazio, Lankidetzeta eta Koordinazioari buruzko maiatzaren 30eko 3/1989 Legea garatzeko proposatuko diren arauak egingo ditu, Euskadiko Zerga-Kideketarako Sailak harmonizatu gabe dituen elementuei dagokienez. Proposamenak Eusko Legebiltzarrera eramango dira lortu nahi den helbururako.
- Iruzur eta elusio fiskalaren kontrako borroka da arlo honetako lehentasuna. Horretarako, Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokari ekiteko Batzordea sortzea adostu dugu. Batzorde honek Iruzur fiskalaren kontrako Borrokarako Plan Bateratua egingo du hiru Herrialde Historikoen eta Gobernuaren parte hartzearekin
 - Plan hau urtero egingo da, eta bere kasuan Foru Ogasunak ikuskatzeko plan berezi eta osagarriak erantsiko zaizkio, eta jarduera eta emaitzak ebaluatzeko helburuak ezarriko ditu. Hauen berri emango da urtero Batzar Nagusietan eta Legebiltzarrean.
 - Alderdi biok adostu dugu ezinbestekoa dela Hiru Foru Ogasunen arteko lankidetzeta. Lankidetzeta hori sustatzeko xedez, administrazio eskudunen arteko lankidetzeta Hitzarmenak ezartzeko bultzada emateko konpromisoa hartzen dugu, informazioa elkarren artean trukatzeko sistema egonkorra ezartzeko. Aipatu Hitzarmenetan aurreikusiko dira

hartu-emanaren egiteko terminoak, tributu datu baseen denbora errealeko interkonexio informatikoa barne, betiere behar besteko lege bermeak zainduz.

Esandako helburuak lortzeko, hiru Foru Ogasunen artean denbora errealean beren eskumeneko jardura fiskaletarako behar duten informazioa eskuratzeko behar den zerga datu baseen interkonexioak gutxienez izango du 2011ko maiatzaren 11n Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Estatuko Zerga Administrazio Agentziaren artean 481/2011 Foru Agindu bidez izenpetu zuten Hitzarmenaren intentsitate eta eduki berbera.

Alderdi biek hitza ematen dute hiru Foru Aldundien artean egingo den negoziaketak eta izenpetuko diren hitzarmenak 2014ko lehen hiruhilekoa amaitu baino lehen gauzatuko direla, eta zerga datu base ezberdinen arteko interkonexio informatikoa ahalik eta eperik laburrenean egongo dela martxan.

3) Euskal egitura instituzionalaren berrikusketa eta Administrazioaren erreforma, zerbitzu publikoa lehiakorragoa, eraginkorragoa eta jasangarriagoa izan dadin.

Euzko Alderdi Jeltzaleak (EAJ-PNV) eta Euskadiko Alderdi Sozialistak (PSE-EE)-PSOE ezinbesteko jotzen dugu euskal erakunde sare eraginkor eta lehiakorragoa izatea, bikoizketak eta teilakatzeak saihestuko dituen, eta hiritargo osoari zerbitzu gehiago eta hobeak eskainiko dizkiona.

Horregatik uste dugu gure erakunde egituraketaren azterketa sakonari ekin behar diogula, kontraste lanaren ondoren arlo juridiko eta legalean egokitzeko, Eusko Legebiltzarrak 2013ko urtarrilaren 24an onartu zuen Legez Besteko Proposamenarekin ados. Proposamenak zera ezartzen du:

"Eusko Legebiltzarrak, hiru hilabeteko epean, batzorde txostengilea eratuko du Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan diharduten administrazio publiko guztien eskumenak aztertzeko.

Batzorde horretan Gernikako Autonomia Estatutuan, Lurralde Historikoen Legean eta, gaur gaurkoz, onartzeke dagoen udal legean oinarritutako erakunde egituraren analisia burutuko da; hartara, lege hori onartzea lehentasunezkoa izango da legealdi honetan. Eta hori guztia, kasuan, erakunde publikoak arautzen dituen egungo araudia errealitate politiko, ekonomiko eta sozialera egokitzeko, betiere, hiritarren zerbitzurako tresna eraginkor eta dinamikoagoak bilatzeko helburuarekin.

Era beran, batzorde txostengile honek aztertuko ditu egon daitezkeen funtzionamendu eta koordinazio arazoak. Halaber, euskal Administrazio publikoa osatzen duten erakundeen artean eman daitezkeen bikoiztasunak ez ezik, erakunde horien eta Espainiar Gobernuaren Administrazioaren artean egon litezkeenak ere aztertuko ditu".

ZERA ADOSTEN DUGU:

1.- Aurreko legegintzaldian bikoiztasun eta disfuntzioei buruz hasi zen azterketa burutzea, gure erakunde sarea euskal gizarteak une honetan dituen beharrizan eta inguruabarretara egokitzeko.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzak txostena egingo du dagokion batzorde txostengileari hurrengo bilkura aldiari bidaliko zaiona, eta txosten honetan aztertu, kontrastatu eta osatuko dira IX. Legegintzaldiaren markoan aurkeztu diren hausnarketak. Txostena egin ahal izateko, aurretik EAEko erakunde guztiei galdegin beharko zaie, eta indar berezia jarriko zaio erakunde esparru bakoitzaren mugaketari eta orain arte Euskadin funtzionatzen duten administrazio publikoetan garatu den kudeaketan antzeman diren tirabira, bikoiztasun eta eragingabetasun puntuak aztertzei.

2.-Euskal administrazio ezberdinek kudeatzen duten sektore publikoa dimentsionatzea, erakunde sarea sinplifikatzeko jarduerak, helburu eta epeak aurreikusiz, Eusko Jaurlaritzak kontuan hartu dituen antzeko irizpideekin. Erakunde bakoitzean helburu hori lortzeko plan bereziak jarriko dira abian, zerbitzu publikoen prestazioaren eraginkortasuna hobetze aldera.

Helburu horiek guztiak lortzeko, eta erakunde esparru ezberdinen artean beste prozesu gurutzaturen bat suspertzeko, betiere alde bien akordioa beharko delarik, alderdi biotako legebiltzar taldeek eta batzarkide taldeek kasu bakoitzean beharko diren ekimenak gauzatzeko konpromisoa hartu dute.

3.- Euzko Alderdi Jeltzaleak (EAJ-PNV) eta PSE-EE Euskadiko Alderdi Sozialistak (PSOE) erakunde guztietan behar besteko akordioak bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu, zilegitasuna, bideragarritasuna eta eraginkortasuna egiaztatze behar besteko azterketak egin eta gero, progresiboki, enpresa publiko berean jarduerak sektore berean edo antzekoan lan egiten duten enpresa publikoak sartzeko.

4.-Ahal den lasterren, Udal Lege Egitasmoa Eusko Legebiltzarrean aurkeztea, 2014ko bigarren bilkura aldian eztabaidatu eta onartu ahal izateko.

Zentzu horretan eta edukiak ezagutzea ahalbidetzeko eta errazteko, eta behar den adostasun maila lortzeko bidean, Eusko Jaurlaritzak hitza ematen du legebiltzar taldeen eskura jarriko dituela aurretiaz EUDELekin adostu diren zirriborroak, Eusko Legebiltzarrari bidali beharreko aurreproiektua onartu baino lehen.

5.-Lege egitasmo honek Politika Publikoen Euskal Kontseilua sortzea aurreikusiko du- honen barruan EAEn funtzionatzen duten hiru erakunde esparruan integratuko dira- eta bere funtzio eta eskumenek dagokien isla izango dute Herri egituraketa instituzionalaren inguruan egingo den legerian.

6.- Herrialde Historikoen Legea eguneratzeari/modifikatzeari ekitea, eta puntu hauetan bildu diren irizpideetan oinarritutako modifikazioak islatzeko behar diren lege aldaketak egitea.

HHL-Herrialde Historikoen Legearen modifikazio/eguneratzeari buruzko eztabaida eta onarpena 2015eko abendua baino lehen egingo da. Modifikazio/eguneratze horretarako ekimen legegilea Eusko Jaurlaritzari dagokio eta PSE-EE-ri emango dio horren berri. Erakunde sistemari koherentzia osoa ematearren, aurkezpen eta eztabaida jadanik eratuta dagoen batzorde txostengile barruan egingo da. Batzorde txostengile honek zainduko du egitasmo horren tramitazioa behar bezalako arintasunez egiten dela, behin betiko onarpena aurretiaz ezarri den epe barruan egin dadin.

7.-Funtzio Publiko eraginkor eta kalitatezkoarekin behar den konpromisoa hartuko da, mugikortasun, malgutasun eta produktibotasunaren igoerarako

irizpideak sartuz eta Euskal Administrazio Publikoen arrazionalizazio eta modernizazioa gauzatuz. Euskal Funtzio Publikoaren Lege egitasmo berria Eusko Legebiltzarrean aurkeztuko da, Eusko Jaurlaritzak berriki onartu duen egutegi legegilearekin ados, 2014ko bigarren seihilekoan.

8.-Euskal Administrazio Publikoaren Legeak, beste helburu garrantzitsuen artean bermatu beharko du hiritarrek informazioa eskuratzen dutela, eta Eusko Jaurlaritzarentzako gardentasun printzipioak finkatu beharko ditu. Halaber, aurreko legegintzaldian Gobernu Irekia izateko abian jarri zen eredia sendotzeko lana egingo du, IREKIA eta Open Data-ren garapenarekin jarraituz. Esandako Lege Egitasmo hori Eusko Legebiltzarrean aurkeztuko da 2014ko lehen seihilekoan.

9.-Euskal hiru administrazio mailen arteko hitzarmenak egitea eta izenpetzea, hiritarrentzako Leihatila Bakarra lortze aldera.

4) XXI. Mendeko Ongizatea: Gure gizarte eredia eta oinarrizko zerbitzu publikoak mantentzeko akordioa:

Akordio honen sinatzaileok zerbitzu publikoak defendatzeko eta beren eraginkortasuna hobetzeko apustua egiten dugu, hiritargoaren beharrezanean erantzuteko eta denon berdintasuna bermatzeko ezinbesteko tresna direlakoan.

- Oinarrizko politika eta zerbitzu publikoak (Hezkuntza, etxebizitza, osasuna, gizarte politikak, e.a) eta hartzzaileak zeintzuk diren zehaztea eta negoziatzea, elkarren artean adostuta beharrezko politikak zeintzuk diren ezarriz. Zentzu honetan, EAJ-PNV-k eta PSE-EE-k

(PSOE) adostu dute Zerbitzu Publikoen Karterari buruzko Dekretua onartuko dutela katalogoko zerbitzu guztiak barnean hartuko dituen eta osoko eragina 2016 urtean izango duena. Dekretu hau, behin adostuta, 2014ko lehen seihilekoan onartuko da. Horretarako, memoria ekonomikoa egingo da, gaur egun Euskal Administrazio Publiko ezberdinek ematen dituzten zerbitzu publikoetarako aurrekontua ezartzeko. Datu hori argi izanik, legea bere osotasunean garatzeko behar diren zerbitzuak islatuko dituen mapa egingo da. Mapa honek zerbitzuen beharizan erreala aurreikusiko du beharizan hau ezaguna denean, eta proiektio zentzuduna aurreikusiko du zerbitzu berriak diren eta oraindik datu errealek bidez ezagunak ez direnetarako.

-
- 2014 urterako bermatuko da, luzatutako aurrekontuan Hezkuntza, Osasun eta Gizarte Politiketako zerbitzuen funtzionamenduari eusteko ezarri den finantzaketa bera.
- Gure gizarte babesaren orain aldiko eta geroko jasangarritasuna bermatzeko hitzarmena, XXI. mendeko euskal gizartearen beharizanei erantzuna emateko eta gizarte kohesioa mantenduz.
- Kalitatezko hezkuntza eta osasun sistemaren eboluzio eta garapena, aurretik egon diren gobernuek hezkuntzaren alorrean (hirueletasuna, Eskola 2.0. eta Lanbide Heziketa) eta osasunaren esparruan (kronikoen estrategia, lehen arreta zerbitzuaren garapena eta inbertsioari, erietxeko arreta, ikerketa eta berrikuntza) abian jarritako egitasmoetan oinarrituta.
- Behar besteko erreformak ahalbidetzea, Zerbitzu Publikoen erabilera

jasangarriagoa eman dadin Gobernuaren aldetik eta administrazio guztiekin.

- 2008 urtean legeak aurreikusten ez zituen kopago neurriak arbuiatzea, eta baliabide gutxien dituztenek kopago horiei aurre egiteko laguntasunak izan ditzaten.
- Herri Dirubideen Euskal Kontseilu barruan proposatu eta defendatuko da Erakunde arteko Funtsa sortzea, Gizarte Zerbitzuen eta Gizarteratze Sistemaren kohesio eta kalitatea bermatzeko.
- Lehentasunezko akzioekin eta mendeko ekarpenekin gertatu denaren ondorioz kaltetuak izan diren pertsonentzako konponbidea bilatzeko neurriak bultzatzen jarraitzea.

5) EAJ-PNV-k eta PSE-EE-k (PSOE) uste dugu erreforma fiskalarekin, iruzurraren kontrako borrokarekin eta agiri honetan biltzen diren beste neurri batzuekin, gainerako beste sarrera eta baliabide batzuk lor litezkeela, eta baliabide hauek 2014-2016 epealdian, gutxi gora behera, 1500 milioi euro izan daitezkeela. Sarrera hauetatik Eusko Jaurlaritzari dagokion zatia agiri honetan aurreikusi diren politikak finantzatzeko lehenetsiko da.

I. eranskinak 2014-2016 epealdian garatzeko, Suspertze Ekonomikorako eta Enplegua sortzeko aurreikusten duen planerako, 5.740 milioi euroko dotazioa ezarriko da. Kopuru honetatik, 1.860 milioi euro izango dira abal eta bermeetarako eta, esandakoaz gain, egitasmo honek jasoko du Eusko Jaurlaritzari zergen erformatik,

iruzur fiskalaren kontrako borrokatik eta agiri honetan aurreikusten diren beste neurrien bidez lortuko diren dotazioen %50. Kopuru hau 550 milioi eurokoa izango da.

Laburbilduz, Planari atxikitako baliabideen bolumen osoa 6.290 milioi eurokoa izango litzateke.

6) **EAJ-PNVk eta PSE-EEK (PSOE)** babesak emango diote Eusko Jaurlaritzari, Espainiako Gobernuarekin egingo den negoziaketan 2013rako ezarriko den defizitaren murrizketa %1,3ra hurbiltzea eta hurrengo urteotan %1eko portzentajera hurbiltzea lortzeko.

AKORDIOARI JARRAIPENA EGITEKO BATZORDEA

Akordioari Jarraipena egiteko Batzordea eratuko da, eta EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) alderdi biek ordezkari bina izendatuko dituzte. Aukeratutako ordezkari instituzional hauek Batzorde horretan parte hartuko dute alderdi biek egoki jotzen dutenean. Batzordearen bilerak alderdi biek deituko dituzte beharrezko jotzen duten guztietan.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko irailaren 9an.

